

HAIZEA

Errepika: Haizea, haizea
xixtuka ari da.
Haizea, haizea
gaur zirimolaka.

Dantza, dantza, biraka-biraka.
Dantza, dantza ta beste bat hauta.

Haizea, haizea
xixtuka ari da.
Haizea, haizea
gaur zirimolaka.

Hai-ze-a hai-ze-a xixtuka a-ri da hai-ze-a hai-ze-a gaur ziri-mo-la-ka.

Dan-tza dan-tza bi-ra-ka bi-ra-ka dan-tza dan-tza ta beste-bat hau-ta.

HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Sekuentzia erritmiko baten lantzea. Pultsazioa (neurria) senditu. Kantua gogoz ikasi. Doinuaren zuzentasuna landu. Sekuentzia erritmikoa eta taupada landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerari egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.
MUNDUAN IHARDUN. Norberak bere mugimenduak haurzokoarekin koordinatu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutzeraz ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (iturak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Gertakari zerrenda bat gogoan atxiki. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gertakari baten kondakizuna ulertarazi pertsona helduari. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...). ◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (iturak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea) 2, 3 eta 4 urtekoentzat

Haurrak errondan daude, xutik.

LEHEN KOPLA

Sekuentziari jarraikiz :

eskuak jo ⇒ *Hai -ze a hai -ze a*

lekuan berean gorputza kulunkatu ⇒ *xixtuka ari da*

Eskuak jo ⇒ *Hai -ze a hai -ze a*

Eskuak bat bestearen inguruan ibili ⇒ *gaur zirimolaka*

BIGARREN KOPLA

Lekuan berean, haurra itzulika dabil besoak zabalik, beti errondan egonez.

Alde batera itzuliz ⇒ *Dantza, dantza, biraka-biraka*





Beste aldera itzuliz ⇒ *Dantza, dantza, ta beste bat hauta*

USTIAPENA (egin moldea) 5 eta 6 urtekoentzat

Haurrak errondan daude, binazka, parez-pare.

LEHEN KOPLA

Sekuentzia erritmikoa binazka jo ⇒ (bi aldiz)

Eskuak jo
Lagunaren eskuen kontra jo
Eskuak jo

Hai *-ze* *a* *hai* *-ze* *a*

Lekuan berean kulunkatu ⇒ *xixtuka ari da*

Lehen aldian bezala : *Hai* *-ze* *a* *hai* *-ze* *a*

Eskuak bat bestearen itzulian ⇒ *gaur zirimolaka*



BIGARREN KOPLA


Beti binazka, bi lagunen eskuineko besoak gurutzatuz, itzuli eta berdin ezkerreko besoarekin



Zentzu batean bira ⇒ *Dantza, dantza, biraka-biraka*



Beste zentzuan bira ⇒ *Dantza, dantza, ta beste bat hauta*



Lagunez aldatu ⇒

eta berriz hasi ⇒ *Haizea haizea...*

Beste ariketa zenbait :

- Entzumenaren lantzeko :
 - haize edo airearen soinu ezberdinak entzun (haize goxoa, haize azkarra, haizearen marruma)
 - tresneriarekin : ile idorgailua, iretsgailua, haize errota, esku-haizea, hauspoa, punpa...
 - ahoz jotzen diren musika tresnak : tronpeta, aho musika, txistua...
- Tresna horiekin, haizearen alderdi sensoriala bizi : elkarri ufaka, esku-haizearen intentsitatea, tenperatura (beroa, hotza, epela).
- Haizearen indarraz ohartu : paperezko haize errota eraiki eta ufatuz itzularazi, lumetan ufatu eta gauza arinak hatsarekin mugiarazi ; atea eta leihoa ideki paperen airazteko.

HIZKUNTZA HELBURUAK :

Entzumena (ikus *Euria* kapituluan eman ditugun oharrak).

Tresneriarekin eta ahoz jotzen diren musikekin joko bat egiten dugu : haurrak bi multzotan, bata gordea tresneriarekin, bestea jarririk. Lehen taldeak tresna bat edo ahoa erabiltzen du haizearen imitatzeke. Besteak zein tresna erabili den asmatu behar du.

**edun aditz lag.* : Jo duzue, jo dugu.
Instrumentala : Haizea iretsigailuz egin duzue.
Ezezko formak : Ez dugu iretsigailuz egin.

☺ Haizearen marrazkia margo ezazu.

Osatzeko :

- **entzun** *Arbolatik hostoa. Maijane kanta zan !* KDa. Oskorri.
- **ikus** *Haizatu nuen haizea* olerkia. Manex Lanatua « Sapelar ». Kilim Okabeko gauak. Maiatz.
- **ikus** *Hitzak jostailu*, 40. or. J. Ormazabal. Elkar.



